



LANEKO
ISTRIPUAK
EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAN

2018.
URTEKO
TXOSTENA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

LANEKO ISTRIPUAK
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN.
2018. URTEKO TXOSTENA.



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

BARAKALDO, 2019

Edizioa:

1.a, 2019ko iraila

Tirada:

50 ale



OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Internet:

www.osalan.euskadi.eus

Argitaratzailea:

OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales/ Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

Egilea:

DEL HORNO ETXANIZ, María del Carmen (Estatistikaren arduraduna. OSALAN)

Maketazioa:

The Old Market 56. C/ Ribera, 1, 1ºD. 48005 Bilbao

Azaleko diseinua:

The Old Market 56. C/ Ribera, 1, 1ºD. 48005 Bilbao

Fotokonposizioa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 Zamudio. Bizkaia

Inprimaketa:

Estudios Durero. Polígono Ugaldeguren III, Parcela 18 - 4. 48170 Zamudio. Bizkaia

LG:

BI-02428-2019

AURKIBIDEA

1.	METODOLOGIA	7
2.	LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)	10
3.	LANEKO ISTRIPUAK IZATEKO ARRISKUA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA	19
4.	ISTRIPU KOPURUAREN GARAPENA 2002-2018.....	21
5.	ONDORIOAK.....	26
	EAEKO LANEKO ISTRIPUEN TAULAK 2018. URTEA.....	28
	EAEKO LANEKO ISTRIPUEN GRAFIKOAK 2018. URTEA	56



1. METODOLOGIA

1.1 DATUEN ITURRIA.

Txostena egiteko xedez erabilitako datuen iturria Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Segurtasun sailburuaren 2003ko azaroaren 20ko Aginduaren bidez onetsitako lan-istripuen parteak telematikoki aurkezteko eta izapidetzeko IGATT aplikazioaren datu-basea izan da. Azaroaren 19ko TAS/2926/2002 Aginduak ezarritako lan-istripuen partearen eredu berrietan izapidetutako datuak jaso dira bertan.

IGATT aplikazioaren datu-basea lan-istripuen hileko aurrerapen-txostenak sortzeko erabiltzen den bera da. Nolanahi ere, aipatzekoa da txosten honetan aurkeztutako istripuen balioek eta hileko txostenen balioek ezin dutela erabat bat etorri; izan ere, batetik, IGATTeko lan-istripuen erregistroa base bizia da, eta, bertan, erregistratutako parteak aldatu eta ezeztatu egiten dira. Bestetik, ezberdintasun bat dago hileko aurrerapen-txostenetan eta urteko txostenean erabilitako erreferentziako datuen artean. Hileko txostenetan, istripu-partearen data hartzen da erreferentzia gisa; hala, hileko aurrerapen-txosten bakoitzean, aurreko hilabetean **jakinarazitako** istripuen parteak hartzen dira kontuan.

Ostera, urteko txostenetan, istripu-partearen bajaren data da data garrantzitsua: ustiapenaren unera arte jakinarazi diren eta erreferentziako urteko baja-data duten istripu guztiak hartzen dira kontuan kasu honetan, 2018koak.

1.2 AZTERTU BEHARREKO DATU MULTZOA: DENBORA-TARTEA ETA HAUTAKETA-IRIZPIDEAK.

IGATT aplikazioari jakinarazitako eta Lan Zuzendaritzak balioztatutako lan-istripuak (LI) sartu ziren. Hautaketa-irizpideak honako hauek izan ziren:

- 2018-01-01a eta 2018-12-31 arteko baja-data duen istripu-partea, biak barne.
- Istripu berriaren parte (birgaixotzeen parteak kanpoan utzi ziren).

Istripu-seriearen ateratze-kontsulta 2019ko apirilaren 2an egin zen.

1. METODOLOGIA

1.3 AZTERGAI DEN POPULAZIOA.

Gertatutako istripuak aztertzeko aintzat hartu den populazioaren ezaugarriak hauek dira: EAEko langileak dira, Gizarte Segurantzaren izena emanda daude, azterlanak iraun duen aldietan alta-egoeran zeuden, eta laneko kontingentzien aurrean babeserik ez duten autonomoak. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, sartu egin dira Erregimen Orokorreko Etxeko Langileentzako Sistema Berezi berriko langileei eragin dieten lan-istripuak, abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen 39. xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

2018an Gizarte Segurantzaren izena emandako populazioa hartu da oinarri, honako aldagai hauen arabera: erregimena, lurralde historikoa, jarduera ekonomikoa, adina, sexua eta kontratu mota.

1.4 TXOSTENEAN ERABILITAKO MAIZTASUN- ETA ARRISKU-NEURRIAK.

2018. urteko lan-istripuen kasuan, hiru neurri mota erabili dira:

1. **Aztergai den denboraldian gertatutako istripuen kopurua.** Taula batean jaso dira, intereseko zenbait aldagaitan banatuta.
2. Aldi bateko **gorabeheren tasa edo indizea** (aldi horretako azken hilabetearen pilatua). Toki eta aldi jakin bateko gertaeren maiztasuna eta garrantzia neurtzen dituzte. Leku eta denbora-tarte jakin batean gertatutako lan-istripuen kopurua da, mila langileko.
3. **Arrisku-neurriak:** Aurreikusitako arriskua, gorabeheren indizearen erlazioaren arabera kalkulaturik. Konparazio-taldearekin alderatuta ezaugarriaren bat partekatzen duten langileek lan-istripuak jasateko maiztasunik handiena kalkulatzeko erabiltzen dira.

Gorabeheren tasen erlazioak kalkulatu ziren, honako hauek oinarri hartuta: langileen sexua, adina, kontratazio mota, lurraldea eta istripua gertatzearen langilearen lantokia zen enpresaren jarduera-sektorea. Faktore guztiak batera aztertzeko, erregresio-eredu bat erabili da, betiere faktore bakoitzak istripuaren gertaeran edo gertaerarik ezean izan lezakeen eragina neurtzeko xedez, aztertutako gainerako faktoreak kontuan hartu gabe.

1. METODOLOGIA

2018ko lan-istripuen gorabeheren indizearen eredu sortu da, Poissonen erregresio baten bidez, honako aldagai hauek egokituta: sexua, adin-taldea (16-24, 25-44 eta 45 eta gehiago), istripu-partea zein lurraldetan erregistratu den, zein jarduera-sektoretakoa den istripua gertatu den enpresa eta zein kontratu mota duen istripua izan duen langileak (kontratu mugagabea / aldi baterako kontratua); horrez gainera, langile autonomoak gehitu dira hirugarren kontratu «mota» gisa, Gizarte Segurantzaren haiei dagokien erregimenaren arabera. Lanaldian baja hartzea eragindako lan-istripuei lotutako hainbat eredu egokitu ziren: lan-istripu guztietarako eredu bat; gizonezkoek izandako istripuen azpimultzoetarako beste eredu bat, eta emakumezkoek jasandako istripuen azpimultzoetarako hirugarren eredu bat. Horrez gainera, istripu larrietarako eta heriotza-istripuetarako eredu bat egokitu zen, bai eta istripu arinetarako beste bat ere. Azken eredu horren eta hasieran aipatutakoaren emaitzak ia-ia berberak dira.

Arrisku erlatibo gorabeheren indizeen edota ereduan lortutako dagokion koefizientearen esponentzialaren bidez lortzen da, gainerako aldagaiek egokituta.

4. **Indize-zenbakiak:** neurri estatistiko horri esker, posible da magnitude baten edo gehiagoren fluktuazioak edota aldaerak aztertzea, betiere denboraren arabera, hots, oinarri-urteko balioaren arabera 2009koa. Neurri hori erabili izan da lanaldian eta/edo «in itinere» gertatutako istripuak neurtzeko, hainbat aldagairen arabera.

1.5 DATUEN TABULAZIOA.

Datu osoak jaso dira taula batean, gizonezkoei eta emakumezkoek dagozkienak. Ondorioz, hiru zati atera dira taula bakoitzean.

Lan-istripuak bitan banatu dira: **lanaldian** gertatutako istripuak eta «**in itinere**» gertatutako istripuak. Lanaldian gertatutako istripuen artean, ohiko lantokian, beste lantokiren batean edo lan-arrazoiak direla-eta joan-etorrietan zehar gertatutakoak sartu dira; «in itinere» gertatutako istripuak lanera joatean edo lanetik bueltatzean gertatutakoek dagozkie.

Era berean, baja eragin duten istripuak sartu dira taula batean, lesioaren izaeraren arabera eta istripu **traumatiko eta ez traumatikotan** sailkatuta. Ez traumatikoetan, bihotzekoen ondoriozko lesioak, garunetako odol-hodietako istripuak eta traumatikoak ez diren beste patologia batzuk sartzen dira, eta gainerakoak traumatikoak dira.

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

2.1 ZIFRA ABSOLUTUAK ETA GORABEHEREN INDIZEAK. 2017-2018KO KONPARAZIOA.

Guztira, 29.879 lan-istripu gertatu ziren 2018an, lanaldian gertatutako eta lan-agintaritzari jakinarazitako bajak eragin zituzten istripuak aintzat hartuta. 2017. urtean, 29.484 istripu zenbatu ziren (LI-1 taula). Gizonezkoek izandako istripuek gora egin zuten: 21.917 2017an, 22.176 2018an. Emakumezkoek izandakoek ere bai: 7.567 2017an, 7.703 2018an.

Bi aldiak konparatuta, ikusi da lanaldian gertatutako eta baja eragindako 395 gehiago gertatu direla, hau da, % 1,3 igo dira, 2017. urtearen aldean. Istripu-gehikuntza horretan, 259 gizonezko langileenak izan dira (% 1,2), eta 136 emakumezko langileenak (% 1,8).

Hala ere, lanaldiko istripuak eta langileen populazioa lotzean (LI-8 taula), ikusi dugu gorabeheren indizeak behera egin zuela, eta, hortaz, baja eragin duten istripuak 38,01etik 37,55era jaitsi direla mila langileko; hau da, % 1,2ko beherakada izan da. Gorabeheraren aldaera sexuaren arabera desberdina da. Izan ere, gizonezkoek dagokiena 55,41 zauritutik 54,75 zauritura igaro da, mila langileko. Emakumezko langileei dagokien aldaerari begira, ordea, beherakada txikiagoa da (19,91 2017an, eta 19,72 2018an).

2018an baja eragindako 3.827 istripu gertatu ziren «in itinere», guztira, eta, hortaz, % 2,2ko beherakada izan zen 2017. urteko datuaren aldean (LI-6). Emakumezkoek istripu gehiago izan zituzten (2.160), baina % 2,9 egin zuten behera, 2017. urtearen aldean. Gizonezkoek 1.667 istripu izan zituzten, 2017an baino istripu gutxiago. Horrenbestez, beherakada % 1,4koa izan zen. Bestetik, gorabeheren indizeari dagokienez, istripuen beherakada handiagoa izan zen: % 5,5ekoa (5,85 2017an, eta 5,53 2018an) emakumezko langileen kasuan, eta % 3,7koa gizonezko langileen kasuan (4,27 milako 2017an, eta 4,12 2018an) (LI-7 taula).

LI-1etik LI-12ra bitarteko tauletan, bi aldietan baja eragin zuten lanaldian eta «in itinere» gertatutako istripuen kopuruak jaso dira, lurraldearen, sektorearen eta lesio-mailaren arabera. Era berean, aldagai horien eta dagozkien gorabeheren indizeen arabera sailkatutako istripu ez traumatikoen zifrak jaso dira.

2018. urtean baja eragindako eta lanaldian gertatutako istripuen kopurua honako hau da, lesio-mailaren arabera: 29.685 istripu arin, 162 larri eta 32 heriotza-istripu. Horrek esan nahi du istripu arinek % 1,3 egin zutela gora (% 1,2 gizonezkoek izandako istripuek, eta % 1,7 emakumezkoek izandakoek), eta % 4,5 istripu larri guztiek (% 0,7 egin zuten behera gizonezkoek izandako istripuek, eta emakumezkoek izandakoek, ordea, % 40,0). Gizonezkoek izandako heriotza-istripuei begira, 25 gertatu ziren 2017an, eta 30 2018an (% 20ko gorakada); emakumezkoek dagokienez, ez zen bat ere ez gertatu 2017an, eta bi 2018an (LI-6 taula).

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

Baja eragindako «in itinere» gertatutako istripuei dagokienez, 2018an, 3.787 istripu arin, 37 larri eta hiru heriotza-istripu gertatu ziren. Datu horiek erakusten dutenez, istripu arinek % 2,2 egin zuten behera, eta % 50 heriotza-istripuek. Istripu larriek % 5,7 egin zuten gora. Bilakaera aldekoa da emakumezkoei begira. Izan ere, istripu arinek % 2,9 egin zuten behera (gizonezkoek izandakoek, berriz, % 1,4 egin zuten behera), eta istripu larrien kopurua ez da aldatu (gizonezkoek izandako istripu larriek % 11,8 egin zuten gora). Horrez gainera, gizonezko langileek izandako heriotza-istripuek % 40 egin zuten behera, eta emakumezkoek ez zuten heriotza-istripurik izan (LI-6 taula).

Lanaldian gertatutako istripuek % 2 egin zuten behera 2018an, betiere nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean. Hala ere, istripu horiek % 2,4 egin zuten gora industrian, % 3,1 eraikuntzan eta % 0,5 zerbitzuetan. Gizonezkoek izandako kopururik handiena industriaren sektorean gertatu zen (9.599 istripu), baina istripuen kopuruak gehien gora egin zuen sektorea eraikuntzarena izan zen (% 3,1eko gorakada). Emakumezko langileek izandako istripuen % 88 zerbitzuen sektorean gertatu zen (6.783 zauritu), eta % 2ko gorakada gertatu zen 2017. urtearen aldean (LI-1 taula).

Sektore bakoitzean «in itinere» gertatutako istripuak, 2017. urtearen aldean, ez ziren aldatu, edo gutxi egin zuten behera termino absolutuetan, bai gizonezkoei bai emakumezkoei begira (LI-1 taula).

Lanaldian gertatutako gorabehera guztien indizeari begira (LI-2 taula), beherakadak izan ziren nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean, bai eta eraikuntzaren eta zerbitzuen sektorean ere (% 1,6ko, % 1,7ko eta % 2,2ko beherakadak, hurrenez hurren). Industria-sektorean, ordea, % 0,6ko gorakada izan zen. Gizonezko langileei begira, gorabeherak gora egin zuen industria-sektorean soilik (% 1,1eko gorakada), eta gorabeherarik txikiena zerbitzuen sektorean gertatu zen (37,79 zauritu milako); eraikuntza-sektorean izandakoa, ordea, handiena izan zen (96,17). Emakumezkoek nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren sektorean jasandako gorabeherak 20,80tik 22,67ra egin zuen gora milako (% 9), eta datu hori gainerako hiru sektoreetan izandako beherakadaren oso bestelakoa da (% 3,1eko beherakada industrian, % 6,6koa eraikuntzan eta % 0,7koa zerbitzuetan). Emakumezkoek izandako gorabeherarik txikienak gertatutako sektorea eraikuntzarena da (6,61 langile mila zaurituko), lanaldian.

2018an, 54,4 istripu ez traumatiko gutxiago gertatu ziren 2017. urtearen aldean, hots, % 6,9 egin zuten behera. Gizonezkoek izan zituzten istripu gehienak (47 istripu 2018an, eta horrek agerian uzten du % 9,6ko beherakada izan zela 2017. urtearen aldean). Emakumezkoek zazpi istripu ez traumatiko izan zituzten, hau da, 2017an baino istripu bat gehiago (% 16,7ko gorakada). Gorabehera dagokienez, beherakada globala 0,02koa izan zen milako (LI-3, LI-4 eta LI-12 taulak).

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

2.2 LURRALDE HISTORIKOA

Arabian, lanaldian gertatutako istripuek % 3,2 egin zuten gora (169 istripu gehiago gertatu ziren); Gipuzkoan, % 2,4 (209 gehiago); eta, Bizkaian, lanaldian gertatutako istripu guztien kopurua ez zen aldatu (hamazazpi gehiago). Araban izandako gorakada horren arrazoirik nagusiena gizonezkoek jasandako istripuak izan ziren (164 istripu gehiago; emakumezkoei begira, lau gehiago); Gipuzkoan, emaitzak ia berberak izan ziren (gizonezkoei begira, 102 gehiago, eta emakumezkoei begira, 107). Hala ere, zenbaki gordinei beharrean lurralde bakoitzean izandako gorabeheren indizeei erreparatzen badiegu, gorabehera-tasa jaitsi zen Bizkaian (% 2,1), eta Araban eta Gipuzkoan mantendu egin zen. Gizonezkoek jasandako istripuek gora egin zuten Araban (0,68 zauritu gehiago milako, % 1,3), eta Bizkaian, berriz, behera egin zuten (1,12 zauritu gutxiago mila langileko, -% 2). Emakumezkoei dagokienez, gorabehera-tasak arin egin zuen behera, honako arrazoi hauek direla eta: batetik, Araban izandako beherakada (% 2,8koa), eta baita Bizkaian ere (% 1,9); bestetik, Gipuzkoan izandako % 2,2ko gorakada (LI-9 eta LI-10 taulak).

«In itinere» egindako joan-etorriei begira, emakumezko langileek izandako istripuen kopuruak behera egin zuen, guztira; 64 gutxiago gertatu ziren (% 2,9ko beherakada EAEn, % 5,4koa Araban, % 3koa Bizkaian eta % 1,1koa Gipuzkoan). Arabako gizonezko langileek «in itinere» izandako istripuek % 10,9 egin zuten gora; Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, istripu horiek % 4,4 eta % 3,6 egin zuten behera, hurrenez hurren (LI-9 eta LI-19 taulak).

Lanaldian gertatutako istripuen aldaera bateratua konparatzen badugu, betiere lurraldearen eta jarduera-sektorearen arabera, Araban gertatutako istripuen gorakadaren arrazoia (5.423 2018an, eta 5.254 2017an), oro har, zerbitzuaren sektoreko langileek izandako istripuen gorakada izan zen (74 istripu gehiago). Nolanahi ere, eraikuntza-sektorean ere gertatu zen gorakada hori, hain zuzen ere, % 13,1eko gorakada, 2017. urtearen aldean (50 istripu gehiago). Emakumezko langileei begira, istripuen kopurua ez zen horrenbeste aldatu (LI-5 taula).

Bizkaian eta lanaldian gertatutako istripuen kopurua ez zen aldatu, baina bilakaera emakumezko eta gizonezkoen artean, bai eta sektorearen arabera ere, ezberdina izan zen. Hala, zerbitzuari dagokion sektoreko gizonezkoek 118 istripu gutxiago izan zituzten (% 2,4ko beherakada), eta industria-sektorean 76 istripu gehiago gertatu ziren (% 1,8). Emakumezkoei begira, aldaerak ez ziren handiak izan (LI-5 taula).

Gipuzkoan, lanaldian 209 istripu gehiago gertatu ziren osotara, eta arrazoi nagusia industria-sektorean diharduten gizonezko langileen bilakaera izan zen (135 istripu gehiago, % 4,2ko gorakada), bai eta zerbitzuetako emakumezko langileena ere (102 istripu gehiago, % 5,5eko gorakada) (LI-5 taula).

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

Lanaldian gertatutako istripu larriei eta heriotza-istripuei begira, Araban izandako bilakaera (bederatzi istripu gehiago), baita Bizkaian izandakoa ere (hamahiru istripu gehiago), Gipuzkoan izandakoa baino kaltegarriagoa izan zen (zortzi istripu gutxiago). Arabako gizonetzoei begira, industrian gertatutako horrelako istripuek gora egin zuten (sei istripu larri eta heriotza-istripu bat gehiago), eta baita eraikuntzan ere (lau istripu larri gehiago). Zerbitzuaren sektorean, ordea, behera egin zuten (bost istripu larri eta heriotza-istripu bat gutxiago), eta Bizkaiari begira, gorakada izan zen nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan (bi istripu larri eta heriotza-istripu bat gehiago), eraikuntzan (hiru istripu larri eta heriotza-istripu bat gehiago) eta zerbitzuan (bi istripu larri eta sei heriotza-istripu gehiago), eta beherakada izan zen industrian (lau istripu larri eta bi heriotza-istripu gutxiago). Aitzitik, Gipuzkoako gizonetzoei begira, behera egin zuten industrian gertatutako istripu larriek (lau gutxiago), eta ez zen heriotza-istripurik gertatu; eraikuntzan, istripu larriek behera egin zuten (lau gutxiago), eta heriotza-istripu bat gehiago gertatu zen; zerbitzuaren sektorean, istripu larri bat gutxiago gertatu zen, eta nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan, berriz, heriotza-istripu bat gehiago gertatu zen. Bestetik, emakumezkoen begira, istripu larriek eta heriotza-istripuek behera egin zuten, baina bilakaera negatiboa da. Izan ere, 2018. urtean bi heriotza-istripu gertatu ziren (Arabako eta Gipuzkoako zerbitzuetan), bai eta zortzi istripu larri gehiago ere (Arabian, bat nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan, beste bat industrian eta beste bat zerbitzuetan; Bizkaian, bat industrian eta hiru zerbitzuetan; eta, Gipuzkoan, bat zerbitzuetan) (LI-5).

«In itinere» gertatutako istripuen beherakada globalaren arrazoia Bizkaian izandako beherakadak izan ziren (75 istripu gutxiago, % 3,6), baita Gipuzkoan ere (25 gutxiago, % 2,2). Izan ere, Araban gertatutakoek gora egin zuten (hamahiru gehiago, % 1,9). Hiru lurraldeetako emakumezkoen begira, istripuek behera egin zuten (% 5,4 Araban, % 3 Bizkaian eta % 1,1 Gipuzkoan), eta baita Bizkaiko eta Gipuzkoako gizonetzoei begira ere (% 4,4 eta % 3,6, hurrenez hurren). Hala ere, ez zen hori gertatu Arabako emakumezkoen begira (istripuek % 10,9 egin zuten gora). Nolanahi ere, emakumezko langileek «in itinere» izandako istripuen kopurua hiru lurraldeetako gizonetzko langileek jasandako istripuen kopurua baino handiagoa izan zen, beste urtebete.

Bestetik, nahiz eta «in itinere» gertatutako heriotza-istripuen bilakaera osotara aldekoa izan, baita gizonetzko eta emakumezko langileei begira ere, istripu larrien kopuruak gora egin zuen (bi gehiago, osotara). Izan ere, gora egin zuten Araban eta Gipuzkoan gizonetzkoek izandako istripuek (hiru eta bost gehiago, hurrenez hurren), eta baita emakumezkoek Gipuzkoan izandakoek ere (zortzi gehiago) (LI-5).

Lurraldeak konparatzen baditugu gorabeheren indizeari begira, Gipuzkoan gertatu zen gizonetzkoek eta emakumezkoak izandako istripuen kopururik txikiena, bai lanaldian, bai «in itinere», nahiz eta emakumezkoek lanaldian izandako gorabeherak gora egin. Nolanahi ere, «in itinere» gertatutako gorabeheraren bilakaera aldekoa izan zen, Arabako gizonetzko langileen kasuan salbu. Izan ere, haiek izandako gorabeherak % 7,8 egin zuten gora (LI-9, LI-10 eta LI-14).

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

2.3 GIZONEZKO ETA EMAKUMEZKO LANGILEEN EZAUGARRIAK

2.3.1 ADINA (LI-19 TAULATIK LI-23 TAULARA)

Osotara, lanaldian gertatutako eta baja eragindako istripu gehienak 25-44 adin-tartean gertatu ziren (14.851), gorabehera-tasa 16-24 urte bitarteko langileen artean handiagoa izan bazen ere (49,95ekoa 25-44 adin-tartekoek izandako 39,14aren aldean, eta 35,13koa 65 eta gehiagoko adin-tarteari begira). Hala ere, 45 urte edo gehiagoko emakumezko langileek izan zuten lanaldian gertatutako istripuen kopururik handiena (3.950), eta haiei dagokien gorabeheren indizea (21,01 zauritu milako) emakumezko gazteena bezain handia izan zen, ia-ia (21,56). Gizonezkoen kasuan, lanaldietako indizea beherakorra da adinari begira (65,51 gazteen artean, 59,21 erdiko tartean eta 49,04 adinekoen artean) (LI-19 eta LI-20). Nolanahi ere, lanaldian gertatutako heriotza-istripuak 30 urte edo gehiagoko pertsonak izan zituzten (LI-21).

Baja eragindako eta «in itinere» gertatutako istripuei dagokienez, 45 urte eta gehiagoko emakumezkoek izan zituzten istripu gehienak (1.094 istripu). Jarraian, 25-44 urte bitarteko emakumezkoak eta gizonezkoak datoz (944 eta 946, hurrenez hurren). Hala ere, bost urteko taldeak aintzat hartuta, gorabeheren indizerik handienak (LI-22) 65 urte eta gehiagoko emakumezkoek izan zituzten (11,39 istripu milako), baita 16-19 urte bitarteko gizonezko gazteenek (8,01 milako), 20-24 urte bitarteko emakumezkoek (7,36) eta 55-59 urte bitarteko emakumezkoek ere (7,08) (LI-22).

LI-23 taulak erakusten duenez, gizonezkoek izan zituzten, oro har, istripu ez traumatikoak (47 istripu, istripu guztien % 87). Istripu horiek 45 urte eta gehiagoko gizonezko eta emakumezkoek ere izan zituzten.

2.3.2 KONTRATU MOTA (LI-24 TAULATIK LI-27 TAULARA)

Lanaldian zein «in itinere» gertatutako eta baja eragindako istripuetan, lanaldi osoko kontratu mugagabea nabarmendu zen (istripu guztien % 55,7 eta % 51,7, hurrenez hurren), lanaldi osoko aldi baterakoek jarraituta (% 29,8 eta % 26, hurrenez hurren). Bestetik, lanaldi osoko kontratu mugagabea dutenen baja eragindako istripuen kopururik handiena 45 urte eta gehiagoko taldeari dagokio; lanaldi osoko aldi baterako kontratua dutenei begira, berriz, 25-44 adin-taldeari dagokio, bai, lanaldian, bai «in itinere».

Lanaldi osoko kontratu mugagabea maizkoena izan zen istripuen kopuruari begira, baina, gizonezkoen kasuan, gorabeheren tasa handiagoa izan zen «lanaldi osoko aldi baterako» kontratu-modalitatean, bai lanaldian gertatutako istripuei (89,59

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

istripu milako), bai «in itinere» gertatutakoei begira (6,44). Lanaldian, gorabeherarik handiena izan zuen bigarren kontratu mota aldizkako kontratu finko eta mugagabeei dagokiena izan zen (75,43), lanaldi osoko kontratu mugagabeak ez bezala (57,27).

Emakumezkoei begira, lanaldietan gorabeherarik handiena jasan zuten kontratu motak honako hauek izan ziren, hurrenkera bati jarraikiz: lanaldi osoko aldi baterako kontratuak (30,16), aldizkako kontratu finko eta mugagabeak (27,54) eta lanaldi osoko kontratu mugagabeak (23,06). Magnitudeek adierazten duten legez, betiere autonomoak aintzat hartu gabe, emakumezkoek izandako gorabeheren arteko ezberdintasuna (15,04ko maila) askoz txikiagoa izan zen gizonetzkoen aldean (63,48ko maila).

2.3.3 ANTZINATASUNA (LI-28)

Ezarritako antzintasun-taldeak ez dira denboraren banaketa homogeenak; beren helburua da lan-kontratazioari lotutako momentu kritikoei erantzutea, bai eta, batetik, kontratu laburretako eta, bestetik, haien lanpostuetan esperientzia duten gizonetako/emakumezko langileek izandako istripuak islatzea ere.

Lanaldian gertatutako istripuen % 33,7 eta «in itinere» gertatutakoen % 31 lanpostuan urtebete baino gutxiagoko esperientzia zuten gizonetako/emakumezko langileei gertatu zitzaizkien.

Lanaren lehenengo hilabetean gertatutako istripuak lanaldian gertatutako istripu guztien % 8,3, «in itinere» gertatutakoen % 7,3, istripu larrien % 10,1 eta heriotza-istripuen % 17,1 izan ziren.

2.3.4 GIZONEZKO EDO EMAKUMEZKO LANGILEAREN LANBIDEA (LI-29)

Gizonetzkoei begira, 7.151 istripu izan zituzten honako talde honi dagozkion langileek: «7. taldea: Manufaktura-industrietan eta eraikuntzan diharduten artisauek eta langile kualifikatuak (instalazio- eta makineria-operadoreak salbu)». Istripu horiek lanaldietan gertatutako istripu guztien % 32,2 izan ziren. Aitzitik, «in itinere» gertatutako istripuei begira, aipatutako 7. taldeaz gain (340 istripu), 8. taldeak, alegia, «instalazio- eta makineria-operadoreak, -muntatzaileak», istripuen kopuru ia bera izan zuten: 337. Jarraian, 9. taldea dator, alegia, «oinarriko lanpostuak» (324 istripu), eta, horren atzetik, 5. taldea, hots, «jaketxe-, pertsonal- eta segurtasun-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak» (314).

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

Emakumezkoei begira, 5. taldeak, alegia, «jaketxe-, pertsonal- eta segurtasun-zerbitzuetako emakumezko langileek eta saltzaileek» 3.414 istripu izan zituzten lanaldian, eta 747 «in itinere»; emakumezkoek izandako istripuen kopururik handiena jasan zuen taldea izan zen.

2.4 ENPRESAREN PREBENTZIO-KUDEAKETAREN EZAUGARRIAK

2.4.1 ENPRESAREN KONTRATATZEKO MODALITATEA (LI-30)

Lanaldian istripua izan zuten langileen % 67,4k eta «in itinere» gertatutako istripua jasan zuten % 69,9k kontratua sinatu zuten enpresa nagusi batekin. Gizonezkoen lanaldietan gertatutako istripuen % 7 kontrata- eta azpikontrata-enpresetan gertatu zen; emakumezkoei begira, istripuen % 9,3.

2.4.2 ARRISKUEN EBALUAZIOA (LI-31)

Lanaldietan gertatutako eta baja eragindako istripuen % 67,8ri begira, gutxi gorabehera, enpresak arriskuen ebaluazioa egin zuen. Istripuen % 15i begira, ordea, enpresak ez zuen ebaluaziorik egin, eta % 17,2ri begira, ez da horri buruzko daturik jaso.

Horrez gainera, nabarmentzekoa da emakumezkoek izandako eta lanaldietan gertatutako istripu larrien eta heriotza-istripuen % 46,7n soilik egin zela arriskuen ebaluazioa. Gizonezkoei begira, berriz, istripuen % 70,7n egin zen ebaluazioa.

2.4.3 PREBENTZIO-MODALITATEA (LI-32)

Gizonezkoek izandako istripuen % 69,8n eta emakumezkoek izandakoen % 50,8n, enpresak kanpoko prebentzio-zerbitzu bat kontratatu zuen, baina ez nahitaez espezialitate guztietara zuzendutakoa.

Bigarren modalitate gisa, istripuren bat jasandako emakumezkoen % 25,9ren eta gizonezkoen % 14,2ren enpresek prebentzio-zerbitzu propioa zeukaten.

Emakumezkoek izandako istripuen % 3,7n eta gizonezkoek izandakoen % 2,2n, enpresak ez zuen prebentzio-modalitaterik.

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

2.5 ISTRIPUAREN EZAUGARRIAK

2.5.1 ISTRIPUAREN DESBIDERATZEA, FORMA EDO KONTAKTUA (LI-33 ETA LI-34)

Lanaldian gertatutako istripuen desbideratzeari lotutako talderik ugariena (istripuaren aurretik izandako gertaera ezohikoa), bai gizonezkoen, bai emakumezkoen kasuan, 7. taldea izan zen, hots, «Ahalegin fisikoa eskatzen duen gorputz-mugimendua»; 5.578 eta 2.312 istripu, hurrenez hurren (gizonezkoek izandako istripuen % 25,1, eta emakumezkoek izandakoen % 30).

Istripurik ohikoenaren forma edo kontaktua honako hau izan zen: «Gehiegizko ahalegin fisikoa, trauma psikikoa, erradiazioen, zarataren, argiaren edo presioaren aurreko esposizioa»; gizonezkoek izandako 7.788 istripu (istripu guztien % 35,1), eta emakumezkoek izandako 3.222 istripu (istripu guztien % 41,8). Kasu horien % 60,3n, aurretik izandako gertaera ezohikoa honako hau izan zen: «Ahalegin fisikoa eskatzen duen gorputz-mugimendua».

Desbideratzea eta forma modu bateratuan aztertzen baditugu, istripurik ohikoena (gizonezkoek izandakoen % 22 eta emakumezkoek izandakoen % 26,8) gehiegizko ahalegin muskulu-eskeletikoa eragindako ahalegina eskatzen duen mugimendua izan zen. Horrez gainera, gizonezkoek begira, istripuen % 10,7n eta, emakumezkoek begira, % 11,7n, ahaleginik gabeko mugimenduek eragindako gehiegizko ahaleginak egin ziren (zapaltzea, jesartzea, belaunikatzea...).

Emakumezkoek izandako istripuen % 19,7 eta gizonezkoek izandakoen % 10,9 irristada ondoko erorketak izan ziren, eta zapaltzeren bat eragin zuten mugitzen ez den objektuen baten gainean edo haren aurka. Bestetik, gizonezkoek izandako istripuen % 10en, makinen kontrola galdu zen (orokorrean), eta, ondorioz, talkak edo kolpeak eman ziren mugitzen ari ziren objektuen kontra.

2.5.2 TRAFIKOAREKIN LOTUTA LANALDIAN (LI-35)

Trafikoko istripuak lanaldian gertatutako istripu guztien % 2,6 izan ziren, baina ezberdintasunak daude gizonezkoen eta emakumezkoen artean. Izan ere, lehenengoek % 2,8 izan zuten, eta bigarrenek, berriz, % 2,1.

Lanaldian gertatutako eta trafikoarekin lotutako istripu larri eta heriotza-istripuen % 90,9 izan zuten gizonezkoek.

2. LANALDIAN ETA «IN ITINERE» GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUAK (LI)

2.5.3 TRAFIKOAREKIN HARREMANA, IN ITINERE (LI-36)

Trafikoko istripuak «in itinere» gertatutako istripuen % 48,8 izan ziren. Horrelako istripuak gizonezkoek gehiago izan zituzten emakumezkoek baino: Gizonezkoek izandako eta «in itinere» gertatutako istripuen % 61,4 trafikoko istripuak izan ziren, eta, emakumezkoen kasuan, % 39.

«In itinere» gertatutako istripu larri eta heriotza-istripu guztien % 70,4 gizonezkoek izan zituzten, eta, emakumezkoek, % 29,6.

3.

LANEKO ISTRIPUAK IZATEKO ARRISKUA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA

2018ko urtarrila eta Abendua artean istripua izatearen eta honako bost faktore hauen arteko lotura aztertu da: lantokia dagoen lurraldea, enpresa enplegatzailearen jarduera-sektorea eta langilearen sexua, adina eta kontratazio mota. Azterketa lanaldian gertatutako baja eragindako istripu orokorrak eta gizonezko eta emakumezko langileen istripuak aztertzeko egin da.

Metodologiari buruzko atalean adierazi denez, gorabeheren adierazleak eta gorabeheren adierazleen arrazoiak Poissonen erregresio-eredu baten bidez lortu dira, aurreko paragrafoan aipatutako aldagaiak egokituz.

3.1 LANALDIAN GERTATUTAKO LAN-ISTRIPUEN AZTERKETA OROKORRA. (IKUS LI-37 TAULA)

Gainerako aldagaiak egokitu ondoren, ondorioztatu da gizonezkoek emakumezkoek baino arrisku bikoitza baino handiagoa zutela lanaldian istripuak izateko.

Lurraldeei begira, guztira, arrisku zertxobait handiagoa izan zen Bizkaian, eta Gipuzkoan zertxobait txikiagoa Arabarekin alderatuz (azken lurralde hori hartu da neurri gisa). Bizkaiaren kasuan, Bizkaiko gizonezko langileek izandako arrisku handiagoan zegoen ezberdintasuna (% 5 handiagoa Arabakoek zuten arriskuaren aldean, eta % 8 altuagoa Gipuzkoakoek zuten arriskuaren aldean). Hala ere, gizonezkoen arteko ezberdintasun hori ez zen guztiz erabatekoa, konfiantza-tarteak pixkatxo bat gainjarri baitziren. Gipuzkoako arrisku txikiagoa bertako emakumezko langileek izandako arrisku txikiagoan zegoen; Arabako langileek izandako arriskua baino % 17 txikiagoa izan zen, eta Bizkaiko langileek izandakoa baino % 18 txikiagoa. Gipuzkoako jokabide-ezberdintasun hori adierazgarria izan zen beste bi lurraldeen aldean.

Enpresaren jarduerari dagokionez, arrisku gehien izandako sektorea nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza izan zen orokorrean, bai gizonezkoentzat, baita emakumezkoentzat ere.

Bigarren sektorean lan egiten duten gizonezkoentzat (sektore horretako arriskua aurrekoaren erdia da), eraikuntza da arriskutsuena. Industriak are arrisku txikiagoa du gizonezkoentzat (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako arriskuaren % 40 inguru). Azkenik, zerbitzuen sektoreak du arriskurik txikiena, lehenengo sektoreak duen laurden bat, hain zuzen ere.

Paradoxikoa da, baina, emakumezkoen artean, eraikuntza-sektoreak du arrisku txikiena, lauetatik: nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako arriskuaren bosten bat baino gutxiago. Industriak eta zerbitzuek nekazaritzak, abeltzaintzak eta arrantzak baino arrisku gutxiago zuten (% 48 txikiagoa lehenengoak eta % 60 txikiagoa bigarrenak), baina, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzari begira, arriskutsuagoak ziren emakumezkoentzat gizonezkoentzat baino.

3. LANEKO ISTRIPUAK IZATEKO ARRISKUA SEXUAREN, ADINAREN, LURRALDE HISTORIKOAREN, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA

Sexu-ezberdintasun horiek lotura dute emakumezkoek eta gizonezkoek dituzten lanbide eta lanekin, ezaugarri ezberdinak dituzten jarduera ekonomikoen eta enpresen bidez bideratzen direnekin, hain zuzen ere.

Arrisku gehien izandako kontratu mota aldi baterakoa izan zen, kontratu mugagabeak zituzten gizonezkoek istripuak izateko baino % 32ko eta emakumezkoek baino % 22ko arrisku handiagoa zutelarik. Autonomoek izan zuten arrisku gutxien, dirudienez, istripuen aitorpenak txikiagoak izan zirelako, aseguru-araubidea dela-eta.

Gizonezko edo emakumezko langileen adin-taldeak ezberdintasunak sortu zituen arriskuan baita ere, eta ezberdina izan zen gizonezkoen eta emakumezkoen kasuan. Hala, arriskurik txikiena izan zuten gizonezkoak nagusienak izan ziren (45 urte eta gehiago), gazteenek baino % 31 gutxiago zutelarik (16-24 urte). Tarteko adinekoek ere tarteko arriskua izan zuten (% 12 gutxiago).

Hala ere, emakumezko langile nagusienek izan zuten arrisku gehien, gazteenek baino % 13 gehiago baitzuten, eta tarteko adinekoek baino % 27 gehiago.

3.2 LANALDIAN GERTATUTAKO ISTRIPU LARRIEN ETA HERIOTZA-ISTRIPUEN AZTERKETA. (LI-38)

Istripu larria edo heriotza-istripua izateko arriskua askoz ere altuagoa izan zen gizonezkoen kasuan, emakumezkoen kasuan baino (hirukoitza inguru). Nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreak istripu larrienak izateko arriskurik handiena izan zuen, eta, ondoren, eraikuntzakoak, industriakoak eta zerbitzuetakoak, hurrenkera horretan. Kontratazio mugagabeek izan zuten arriskurik txikiena, baita 25-44 adin-tarteak ere. Lurraldeetan, Bizkaiak eta Gipuzkoak Arabak baino arrisku nabarmen txikiagoa izan zuten. Istripu larriak eta heriotza-istripuak gutxi izan zirenez, konfiantza-tarte oso handiak sortu ziren, eta, beraz, arriskuari buruzko ondorioak ez ziren hain zehatzak, hainbat ezaugarriren arabera.

4. ISTRIPU KOPURUAREN GARAPENA 2002-2018

LI-39tik LI-43ra arteko tauletan 2002tik 2018ra arte gertatutako eta baja eragindako istripuen seriea aztertu da. Erreferentziako urtea 2009 izan da (oinarri-urtea), informazio-maila parekidea duten urteko txostenen hasiera markatzen baitu. Hala, indize-zenbakiek 2009an aurkeztu zenarekiko urte batek duen istripu-tasaren balioaren proportzioa adierazten dute, hainbat ezaugarri zehatzen arabera (100 balioa).

2002 urtea baino aurreko urteetako datuak 2017ko urteko txostenean jaso dira. Aurtengoan, 2002. urtetik aurrerako serieak jaso dira, informazioa hobeto bistaratzeko.

Bestalde, taula horietako datuak grafikoetan adierazi dira (1etik 19ra arteko irudiak).

4.1 GARAPEN OROKORRA (LI-39 ETA LI-40)

Lehenik eta behin, LI-39 taulan ikusi daiteke 2002tik 2017ra arteko joera beherakorra dela istripu-kopuru orokorrean, seriea 56.444 istripurekin hasi baitzen (% 46ko igoera 2009. urtearen aldean) eta 2018an 33.706 istripu gertatu baitziren (% 13ko beherakada 2009. urtearen aldean).

2013an gertatu zen lanaldian gertatutako istripuen kopururik txikiena; 24.318 istripu gertatu ziren, eta horietako 17.810 gizonezko langileek izan zituzten. Hala ere, 2012an gertatu ziren lanaldian gertatutako eta emakumezkoek izandako istripuen kopururik txikiena; 6.316 istripu.

«In itinere» gertatutako istripuak gutxitzen joan ziren 2014ra arte, gizonezkoen kasuan (gutxienez, 1.311 istripu, 2009ko istripuen % 66), eta istripu horiek gora egin zuten 2018ra arte (1.667 istripu, 2009an baino % 16 gutxiago). Kopururik handiena 2017an izan zen (1.690 istripu, 2009an gertatutako istripuen % 86). Emakumezkoen istripu-kopurua ezegonkor mantendu zen 2009-2018 aldian; istripu-kopururik txikiena 2011n gertatu zen (1.756 istripu, 2009ko istripuen % 89), eta gehienak 2017an: 2.224 istripu, 2009ko istripuak baino % 13 gehiago. 2018an, 64 istripu gutxiago gertatu ziren 2017. urtearen aldean.

Kontuan hartuz seriearen aldian gizonezkoen eta emakumezkoen enplegu-maila nabarmen aldatu zela, gorabeheren indizeen azterketa zehatzagoa da termino absolutuen aldean. 2002. urtean, lanaldiko gorabehera orokorra 80,83 istripukoa izan zen mila langileko, 2009koa baino % 56 gehiago. «In itinere» bariazioa txikiagoa izan zen (7,18 istripu milako, 2009koa baino % 36 gehiago).

4. ISTRIPU KOPURUAREN GARAPENA 2002-2018

Aldi horretako lanaldiko gorabeheren indizerik txikiena 2013an gertatu zen gizonezko langileen kasuan (47,97 istripu milako, 2009ko balioaren % 74), eta 2012an emakumezkoen kasuan (19,13 milako, 2009koaren % 84). 2018ko gorabeherak behera egin du 2017. urtearen aldean; 54,75 mila gizonezko langileko, eta 19,72 mila emakumezko langileko, eta 2009ko mailen azpitik dago oraindik (% 85 eta % 86, hurrenez hurren, oinarriaren balioa kontuan hartuta). Emakumezkoen lotutako balioak antzekoak dira 2015etik.

Gizonezko langileek «in itinere» gertatutako gorabeheren indizerik txikiena izan zuten 2014an, 3,60 milako, 2009ko mailaren % 77, hain zuzen ere. Emakumezko langileen kasuan, gutxienekoa 5,20 milako izan zen 2011n, oinarri-urteko gorabeheraren % 87. 2018an, talde biek beherakada izan zuten 2017. urtearen aldean, 4,12 milako gizonezkoen kasuan (2009ko balioaren % 88) eta 5,53 milako emakumezkoen kasuan (2009ko balioaren % 92).

«In itinere» gertatutako gorabeheren indizearen balioen maila handiagoa izan zen gizonezkoen kasuan (23 puntuko gehieneko gorabehera, 2009. urtearekin alderatuz) emakumezkoen kasuan baino (hamabost puntu soilik). Gizonezkoen kasuan, joera beherakorra izan zen 2009tik 2014ra arte, eta, gero, gorakorra, 2017ra arte. Ondoren, 2018an, beherakorra izan zen berriro. Alderantziz, emakumezko langileen artean, gorabeheren indizeak gora eta behera egin zuen 2009-2018 aldian.

4.2 GARAPENA LURRALDEAREN ARABERA (LI-41)

